



**LESAKAKO UDALA (NAFARROA)
AYUNTAMIENTO DE LESAKA (NAVARRA)**

LESAKA

Lur-ondasunen gaineko kontribuzioaren 2020ko karga-tasa.

Udal honek, 2019ko urriaren 31an egin osoko bilkuran, honako erabaki hau hartu zuen:

1. Lur-ondasunen gaineko 2020. urteko kontribuzioa ordainarazteko, karga-tasa hau onestea:

- % 0,4849 zerga-tasa, Hiri-lurreko ondasunen gaineko kontribuzioarena.
- % 0,4423 zerga-tasa, Landa-lurreko ondasunen gaineko kontribuzioarena.

2. Erabaki hau 30 egunez jendaurrean ikusgai edukitzea, aldeztuz aitzinetik Nafarroako Aldizkari Ofizialean eta Herriko Etxeko iragarki-taulan iragarrita, herritarrek eta legezko interesdunek espedientea aztertu ahal dezaten.

3. Aitzineko puntuan aipatu den epean erreklamaziorik, eragozpenik edo oharrik ez badago, zerga-tasa horiek behin betiko onetsizat emanen dira. Kasu horretan, lege-ondorioak izan ditzan, egoera hori, behin betiko testuarekin batean, Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratuko da.

Lesakan, 2019ko azaroaren 4an.

Alkate udalburua,



Ladis Satrustegui Alzugaray.